



ARAUDIA ELTXO TRAIL

0.- ANTOLAKUNTZA

- 21k eta 7k Eltxo trail mendi lasterketa, Orendaingo udalak antolatzen du.

1.- DATA ETA KOKAPENA

- Eltxo trail mendi lasterketa, 2026ko urriaren 17an, larunbata, ospatuko da.
- 2 irteera egongo dira distantziaren arabera. Distantzia luzeko 21k irteera 15:30etan izango da eta distantzia motzeko 7k irteera 16:00etan
- Irteera eta helmuga, Orendaingo plazan izango da, udaletxe inguruan.

2.- IBILBIDEAK

- **21k, ibilbide luzea:** Eltxo Trail, Ibiur urtegiaren inguruan egiten den mendi lasterketa da. Gaintza eta Baliarrain herrietatik pasatzen da eta ibilbide luzeak 20,7 km eta +732m desnibel positiboa du.
- **7k, ibilbide motza:** Mendi lasterketetan hasiberriak direnei bideratutako mendi lasterketa da eta Ibiur urtegiaren inguruan egiten da. Ibilbide motzak 7,25 km eta +309m desnibel positiboa du.
- Edozein arrazoiengatik, zirkuitu hauek egitea ezinezkoa balitz, antolakuntzak ibilbide alternatibo bat prestatuta izango du. Aldaketa posible hau, ahalik eta azkarren komunikatuko du antolakuntzak, dituen komunikabide ezberdinen bitartez.
- Lasterketa egitea ezinezkoa balitz, froga bertan behera uzteko eskumena izango du antolakuntzak.

3.- PARTE HARTZEA

- EMF araudiko mailak hartuko dira kontuan.
- **21k, ibilbide luzea:** parte hartzeko aukera izango dute, atleta, mendizale, kirolari federatu edo ez, beti ere, adinez nagusiak badira, 18 urtetik gora, eta 18 urteak lasterketa eguna baina lehen eginak badituzte.
- **7k, ibilbide motza:** parte hartzeko aukera izango dute, atleta, mendizale, kirolari federatu edo ez, beti ere, adinez nagusiak badira, 18 urtetik gora, eta 18 urteak lasterketa eguna baina lehen eginak badituzte eta baita kadete mailakoak (+15 urte).
- Antolakuntzak azterketa medikua egitea aholkatzen du froga baina lehen.
- Ariketak fisikoa egitearen arriskuak parte hartzaile bakoitzak bere gain hartzen du.
- Antolakuntzak edozein parte-hartzaileraren parte hartzeari uko egiteko eskubidea du, baldin eta haien presentziak ekitaldiaren irudia kaltetzen badu.

4.- DERRIGORREZKO MATERIALA

- Bezperako egunetako parte metereologikoaren arabera, derrigorrezko materiala beharrezkoa bada, dortsal banaketaren momentuan komunikatuko da
- Eguraldi txarrarekin: euritakoa edo ura jasaten duen kapa.
- Bero askorekin: ur kantitate minimo bat ematera behartu dezake antolakuntzak.
- Irteerako gunean begiratuko da derrigorrezko materiala duten parte hartzaileek. Arau hau ez betetzeak deskalifikazioa eta frogatik kanporatzea ekar dezake.
- Irteerako material guztiarekin egin behar da lasterketa. Arau hau ez betetzeak deskalifikazioa eta frogatik kanporatzea ekar dezake.

- Edalontzi edo basoa. Lasterkari bakoitzak bere edalontzia erabili behar du anoa guneeetan. Ez da edalontzirik izango gune hauetan. Arau hau ez betetzeak deskalifikazioa eta frogatik kanporatzea ekar dezake.

5.- MAILAK

EMF araudiaren araberako kategoriak hartuko dira kontuan:

- Parte hartzaile guztiek, euren kategoriez gain, maila absolutuan leihatuko dute
- **ABSOLUTU eta SENIOR:** 18 urtetik gorakoak. Ibilbide motze eta luzearen artean aukeratu ahalko dute. OHARRA: kontuan hartuko den adina, parte hartzaileak lasterketaren egunean duen adina izango da.
- **KADETEAK:** 15,16 eta 17 urte. **Derrigorrez 7k ibilbide motza** egin beharko dute. Komenigarria da adinez nagusia den arduradun bat izatea eta antolakuntzarekin kontaktuan jartzea lasterketa egunean. Lasterketa luzea egiteko, parte hartzeko eskaera orria aurkeztu edo bidali beharko zaio antolakuntzari, beharrezko eskakizunak azalduz. Kategoría hauek ez dira sailkapen, podium eta sarietan kontuan hartuko.
- **BETERANOAK:** 40 urte edo gehiago emakumeetan eta 45 urte edo gehiago gizonetan.

6.- SAILKAPENA

- Kronometraia, Cronergy enpresaren ardurapean egongo da eta Cronergy Live aplikazioan ikusi ahal izango da, baita karrera egunerako gaituko den web orrian ere.

7.- ELTXO TRAIL SARIAK

- **21k**

Emakumezko / Gizonezko sailkapen ABSOLUTUA:

- 1.- Txapela + trofeoa + oparia + 100€
- 2.- Trofeoa + oparia + 50€
- 3.- Trofeoa + oparia + 20€

Emakumezko / Gizonezko kronoigoera ABSOLUTUA:

- 1.- Urdaiazpiko hanka

BIKOTE MIXTO sailkapena

- 1.- 2 lagunentzako bazkaria Orendaingo Ostatuan

Emakumezko / Gizonezko sailkapena BETERANOA:

- 1.- Benta-Aldea bodegón Magnun ardo botila

Emakumezko / Gizonezko sailkapena lehen ORENDAINDARRA:

- 1.- Trofeoa + oparia

*OHARRA: orendaindartzat hartuko da, bertan jaioa edota herrian erroldatuta dagoen oro.

- **7k**

Emakumezko / Gizonezko sailkapen ABSOLUTUA:

- 1.- Txapela + trofeoa + oparia
- 2.- Trofeoa + oparia
- 3.- Trofeoa + oparia

Emakumezko / Gizonezko kronoigoera ABSOLUTUA:

- 1.- Saskia

BIKOTE MIXTO sailkapena:

- 1.- 2 lagunentzako bazkaria Orendaingo Ostatuan

Emakumezko / Gizonezko sailkapena lehen ORENDAINDARRA:

- 1.- Trofeoa + oparia

*OHARRA: orendaindartzat hartuko da, bertan jaioa edota herrian erroldatuta dagoen oro.

8.- ELTXOTRAIL PODIOA

Ondorengo mailetako lehen 3 sailkatuekin egingo da podiuma:

- **21k**
 - Emakumezko / Gizonezko sailkapena ABSOLUTUA
 - Emakumezko / Gizonezko BETERANO onena
 - Emakumezko / Gizonezko kronoigoera ABSOLUTU onena
 - BIKOTE MIXTO onena
 - ORENDAINDAR onena
- **7k**
 - Emakumezko / Gizonezko sailkapena ABSOLUTUA
 - Emakumezko / Gizonezko kronoigoera ABSOLUTU onena
 - BIKOTE MIXTO onena
 - ORENDAINDAR onena

9.- IZEN EMATEAK

- 200 parte hartzaile gehienera (100 dortsal 21k-n + 100 dortsales 7k-n)
www.rockthesport.com plataformako izen emate lehentasunaren arabera.
- Izen emate kostua 21k: 25€ (federatuak eta ez federatuak)
- Izen emate kostua 7k: 20€ (federatuak eta ez federatuak)
- Izen emate epea: lasterketa aurreko ostirala (2024ko urriak 18, 23:59 or.):
Internet bidez soilik.
- 200 parte-hartzailetik gora, itxaron zerrenda irekiko da eta aukerak dituzten parte hartzaileekin, antolakuntza jarriko da kontaktuan.

- Izen emateak, erantzukizun zibileko aseguruak eta lasterkariaren poltsa izateko eskubidea ahalbidetzen du.
- Antolakuntzak dortsak batzuk erreserbatu ahalko ditu bere konpromisoetarako.
- Behin izen eman ondoren, ezingo da frogaz aldatu.
- Parte hartzailearen titulartasun aldaketa, antolakuntzari komunikatu beharko zaio izen emateko azken eguna bitartean.
- Ondorengo arau haustek, deskalifikazio motibo izango dira:
 - Titulartasun aldaketa ez egin eta beste izen batekin parte hartzea
 - Dortsak fotokopiatu edota fotokopiatzen uztea
 - Antolakuntzako edozein kide edota frogako partehartzaileekiko jarrera desagokiak izatea.
- Baliogabetzeak eta itzulketak: froga baina 10 egun lehenago arte egongo da baliogabetzeak egiteko aukera, 2024ko urriaren 9 asteazkena 23:59 orduak baina lehen. Edozein kasutan, izen emateen itzulketak egiteko konpromezua hartzen du antolakuntzak, beti ere, **6 EURO-ko** kudeaketa gastuen penalizazioarekin eta kausa justifikatua dagoen bitartean (lesioa edo bestelako ezintasun familiar edo laborala). 2024ko urriaren 9 baina lehen eskatzen den kasuetan (urriaren 9 barne).

10.- SEGURTASUNA

- Istripu eta erantzunkizun zibileko aseguruak izango ditu antolakuntzak.
- DYA zerbitzua egongo da.
- Medikua azterketa bat egitea aholkatzen du antolakuntzak.
- Ariketa fisikoak dakartzan arriskuak norberak bere gain hartuko beharko ditu.

11.- IBILBIDEAREN MARKATZEA

- Ibilbidea eta puntu kilometrikoak, ZINTA, BANDERATXO GORRI, SPRAY BIODERADAGARRI eta KILOMETRO TXARTELEKIN egoki adierazita egongo dira. Kronoigoeraren hasiera eta amaiera ere, beharrezko baliabideekin adierazita egongo dira (kronoigoera amaiera helmuga izango da)
- Markatutako ibilbidea ez egiteak, deskalifikazioa suposatuko du.

12.- KONTROL PUNTUAK

- Gaintza eta Baliarrain herrietan eta kronoigoeraren hasieran, kontrol puntuak egongo dira. **Derrigorrezkoa izango da kontrol puntuetatik pasatzea.**
- Kontrol puntuetatik ez pasatzeak, deskalifikazioa suposatuko du.
- Lasterketa amaitzeko denbora muga, 3 ordukoa izango da.
- Istripu edota lesioagatik ez diren beste kasuetan, lasterketako erretiratzeak kontrol puntuetan kudeatuko dira eta antolakuntzako kideren bati komunikatuko zaio dortsal zenbakiarekin. Kontrol puntuetatik eramango diran lasterkariak helmuga gunera antolakuntzako autoetan.
- Parte hartzaileak dortsala gorde beharko dute antolakuntzaren zerbitzuen onura izan dezaten (afaria adibidez)
- Istripu edota lesioagatik ez diren beste kasuetan, lasterkariaren ardura izango da helmugara iristea, nahiz eta ibilbidean zehar DYA eta bolondresen asistentzia eskuragarri izan.
- Derrigorrezko geldialdia. Lasterkariaren osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen den kasuetan, antolakuntzak eskumena izango du lasterkariak gelditu edota frogatik ateratzeko.

13.- ANOA GUNEAK

- Helmugako anoa guneaz gain, 3 anoa gune egongo dira ibilbidean zehar:
 - 1 Anoa gunea. Gaintza: likidoa (isotonikoa, ura, kola) eta solidoa
 - 2 Anoa gunea. Baliarrain: likidoa (isotonikoa, ura, kola) eta solidoa
 - 3 Anoa gunea. Kronoigoera hasiera: ura

14.- DORTSAL BANAKETA

- Dorsal banaketa, lasterketa egunean egingo da, urriaren 21 larunbatean:
- Orduategiak:
 - 21k: de 13:30 a 15:15
 - 7k: de 13:30 a 15:45

* OHARRA: Lasterkariaren poltsa egunean bertan banatuko da. Poltsa jasotzera etortzen ez den lasterkariak, poltsa eskuratzeko eskubidea galduko du. Ez da bidalketak egiteko eskaerarik onartzen.

15.- INGURUMENA

- Pista, mendi eta terreno partikularretatik igarotzen da lasterketa. Ingurumena zaintzeko, **anoa guneetatik kanpo zaborra botatzea debekatua** dago. Zaborrontziak egongo dira anoa guneetan. Arau hau ez betetzeak deskalifikazioa eta frogatik kanporatzea ekar dezake.

16.- KONTSIGNA ETA DUTXAK

- Kontsigna, Orendaingo udaleko arkupean egongo da eta dutexak, frontoiean.

17.- IBILBIDEKO SEGURTASUNA

- Eguraldi txar edo beste kausa batzuegatik ezinbestekoa bada, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu eta ibilbide alternatibo bat egiteko eskumen osoa izango du.

18.- LASTERKETAN LAGUNTZEA

- Arazoren bat izan duen lasterkaria laguntzeko betebeharra izango dute parte hartzaileek. Gainera, abisua pasa beharko dute hurrengo kontrol puntu edo anoa gunean.

19.- ARDURA

- Izena emandako parte hartzaileek, euren borondate eta arduraz parte hartzen dutela ulertzen da. Beraz, erakunde antolatzailea, kolaboratzaileak, babesleak eta gainerako partaideak korrikalarien eta haien oinordekoen erantzukizun zibiletik salbuetsi, eta salatzeari uko egiten diote.
- Antolakuntza ez da parte-hartzaileen gauza pertsonalez arduratzen. Horretarako, kontsigna existitzen da. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileei, lagunei, zaleei edo materialei gerta dakizkiekeen kalteen ondoriozko erreklamazioen edo eskakizunen erantzule, antolakuntzak kontratatutako aseguru-estalduratik kanpo galduz gero, hondatuz gero.

20.- PARTE HARTZAILE MUGA

- Parte hartzaile muga: 200 partehartzaile 2 ibilbideen artean (100 luzean + 100 motzean). Eskariaren arabera, kantitate hauek aldatzeko eskumena izango du antolakuntzak.

21.- IRUDI BAIMENAK

- Parte hartzaile guztiek, antolakuntzari eta bere babesleei, frogan zehar jasotako argazki eta bideoen erabilera librea baimentzen diote. Ez da inongo dokumenturik firmatuko. Puntu hau ez onartzeak, lasterketan parte hartzeko eskubidea ukatzen du.

22.- ARAUDIA ONARTZEA

- Parte hartzaileek, izena ematen duten momentu beretik, araudia onartzen dute.
- Antolakuntzak beharrezkoa ikusiko balu, araudi honek aldaketak izan ditzake.

- Araudi honetatik at gera daitekeen edozein punturako, EMF-FVM araudia aplikatuko da.

23.- METERELOGIAREN ONDORIOZ ANTOLAKUNTZAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

- Euri edo haizeagatik, ekitaldiaren garapen arrunta egitea posible ez den kasuetan, antolakuntza alternatibo bat exekutatu da, non ekitaldiaren muina frontoiko guneei inguruetara eramango den.



eltxotrail@gmail.com

